

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

4054

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 27koa, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariarena, Euskadiko Medikamentuekiko Ikerketetarako Batzorde Etikoaren osaera nominala berritzeko dena.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariarena 2016ko ekainaren 7ko Ebazpenaren bidez, Euskadiko Medikamentuekiko Ikerketetarako Batzorde Etikoari emandako akreditazioa berritu zen (CEIm-E).

Farmazia Zuzendaritzaren eskabidea jaso da, Euskadiko Medikamentuekiko Ikerketetarako Batzorde Etikoaren osaera nominala aldatzeko. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoen akreditazioak arautzen dituen Osasuneko sailburuaren 1994ko irailaren 28ko Aginduaren 7. artikuluan (urriaren 24ko EHAA, 202. zk.), Sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak arautzen dituen abenduaren 4ko 1090/2015 Errege Dekretuaren 14. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa sortzeko urtarrilaren 11ko 3/2005 Dekretuaren 6. artikuluan eta Ikerkuntza Biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legean xedatutakoa kontuan izanik, eta Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuaren 10. artikulua emandako egitekoak betez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Idoia Camaron Echeandía andrea kentzea Euskadiko Medikamentuekiko Ikerketetarako Batzorde Etikoko idazkariaren kargutik, eta, haren ordean, Arantza Hernandez Gil andrea izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsioa aurkez dezake Osasuneko sailburuordeari zuzenduta edo Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena ofizialki argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 27a.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria,
MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHERRIA.